

ZABOR BILKETA ZERBITZUA MANKOMUNATZEKO AKORDIOA

Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinak gaika biltzeko zerbitzuak kudeatzen ditu (papera, ontzi arinak, beira, biohondakinak, arropa...), baina errefusa ez, izan ere errefusa jasotzeko zerbitzua udalek kudeatzen dute (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiak, bakoitzak bere zerbitzua).

Hori, ordea, aldatzera doa, izan ere, 2016ko abenduaren 1eko bilkuran Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak aho batez zabor bilketa zerbitzua mankomunatzeko akordioa onartu du. Akordio horren arabera, bost udalerrietako etxeko hondakinak (errefusa barne) Udal Elkarteak jaso eta kudeatuko ditu.

Akordio horrek, zabor bilketa zerbitzu osoa Udal Elkartetik kudeatzea onartzeaz gain, hondakinak gaika biltzeko zerbitzu berriaren oinarriak onartu eta zehaztu ditu.

Gaur, abenduak 13, Udal Elkarteak agerraldia egin du eskualdeko komunikabideen aurrean akordio horren berri emateko. Agerraldian izan dira:

- Igor Iturain, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria
- Mikel Goenaga, Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide eta Zarauzko Udaleko EH Bilduko zinegotzia
- Jesus Arana, Udal Elkarteko lehendakariorde eta Zarauzko Udaleko EAJko zinegotzia
- Ana de Benito, Zarauzko Udaleko Irabazi taldeko zinegotzia
- Gloria Vazquez, Zarauzko Udaleko PSEko zinegotzia

Udal Elkarteko lehendakari igor Iturainek adierazi du akordioa lortu dela udalek eta alderdi guztiek akordiorako jarrera argia erakutsi dutelako. Halaber, gaineratu du akordioarekin bat egin dutela Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordean ordezkariak duten alderdi guztiek, hala nola, EAJ, EH Bildu eta PSEk eta ordezkariarik ez duten Zarautz Irabazi eta Orioko Orain Plataformak. Guztiei eskerrak eman dizkie. Horrekin batera, bereziki eskerrak eman dizkie Udal Elkarteko Ingurumen Saileko teknikariei, sistema berriaren lanketa tekniko zehatz eta egokia egin dutelako.

Akordioa laburbilduta: sistema nolakoa

- Etxeko hondakinen bilketa: bost edukiontzi bidezko bilketa: errefusa, organikoa, papera-kartoia, ontzi arinak eta beira. Errefusa eta organikoaren edukiontzien erabilera mugatua izango dute, hau da, txip bidez irekiko dira. Beste edukiontzien kasuan, gaur egungo sistemarekin jarraituko dugu.
- Komertzioak eta ostalaritza: sortzaile handi eta ertainei gaikako bilketa zerbitzua eskainiko zaie, puntuz puntu, honako frakzioak jasotzeko: organikoa, papera-kartoia eta errefusa. Komertzioei astean sei egunez eskainiko zaie zerbitzua eta ostalariei zazpi egunez.
- Enpresak: industrialdeetan puntuz puntu bilduko dira honako frakzioak: organikoa, errefusa, ontzi arinak, egurra, kartoia eta plastiko



filma/poliespana. Jantokia duten enpresei hondakin organikoen sortzaile handiei aplikatzen zaien puntuz puntuko bilketa aplikatuko zaie.

- Landa eremuari dagokionez, ekarpen gune berriak sortuko dira edukiontzi guztiekin.
- Bilketa sistema berri honek gutxieneko bilketa tasak hauek lortzeko bide izan behar du, urtez urte honela banatuta: 2018an %60, 2019an %60-70; eta 2020an %70-75.
- Hondakinak gaika bereiztu eta sailkatzea betebeharrak dira herritar ororentzat.
- Sistema berria ezartzeko lanak egiteko, informazioa zabaltzeko eta sentsibilizazio kanpainak burutzeko, lau hezitzaile kontratatzea aurreikusten da: bi 2017ko ekainean kontratatuko lirateke eta beste biak 2017ko irailean. Hezitzaile horien lan eta eginkizuna izango da, besteak beste, herritarrek sentsibilizatzea, gune "ilunak" identifikatzea eta erabiltzaileei zuzenean ohartarazpenak egitea.
- Zerbitzu berria 2018ko urtarrilaren lehen martxan jartzea aurreikusten da.

Azterketa teknikoa

Udal Elkarteko Ingurumen Sailak landu du sistema berriaren azterketa teknikoa. 2015eko abenduan hasi eta azterketaren lehen atala, gaur egungo sistemaren egoera zehatz mehatz jasotzen duena, 2016ko uztailean aurkeztu zion Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari. Bigarren zatia, sistema berriaren proposamena, 2016ko urrian. Horrez gain, urria eta azaroan zehar Udal Elkarteko eta udaletako (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) teknikari eta politikoek hainbat bilera eta lan-saio egin dituzte, sistema berriaren xehetasunak aztertu eta akordioa lantzeko.

Proiektuaren abantailak

Zabor bilketa zerbitzua mankomunatzeak eta hondakinak biltzeko ezarriko den sistemak abantaila nagusi hauek ditu:


- Zabor bilketa osorik mankomunatzearekin (gaikako bilketak eta errefusa Udal Elkarteak kudeatzearekin) baliabideak optimizatuko dira eta zerbitzu bera eskainiko da eskualde osoan.
- Hondakinak gaika biltzeko indizea igotzea lortuko dugu, gaur egungo %40tik %75-80ra.
- Errefusa gutxitzearekin tratamendu kostuak murriztu egingo dira.
- Herritarrek eskua izango dituzte edukiontzi guztiak egunero, 24 orduz.
- Zerbitzu hobea eskainiko zaie merkatari, ostalari eta enpresei (frakzio gehiago eta puntuz puntu).
- Landa eremuan birziklitzeko aukera handiagoa izango da.
- Behar diren baliabideak jarriko dira herritarrei behar den informazio eta laguntza emateko eta, horren bidez, elkarrekin, proiektuaren helburu nagusia lortzeko, hondakinaren %75-80 gaika biltzea, gero birziklatu ahal izateko.



Hurrengo urratsak

Akordio hori gauzatzeko Udal Elkartearen Estatutuak aldatu behar dira. Aldaketa horri hasiera emango zaio 2016-12-15eko Batzar Nagusiaren bilkuran.

Horrekin batera, Udal Elkartea eta udalak lanean ari dira zerbitzu mankomunatua eskaintzeko kontratuaren baldintzak prestatzen. Kontratu hori 2017ko uda aurretik esleitzea da helburua, zerbitzu berria 2018ko urtarrilaren 1ean martxan jartzeko.



Zabor bilketa zerbitzua mankomunatzeko akordioa, 2016-12-01

ZABOR BILKETA ZERBITZUA MANKOMUNATZEKO AKORDIOA

Zabor bilketa zerbitzua mankomunatzeko akordioa Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak 2016-12-01eko bileran aho batez onartua

- 2016ko urriaren 28an, Zuzendaritza Batzordeko kideei eta Udal Elkartearen osatzen duten udaletako alkateei aurkeztu eta ondoren sortutako lantalde politiko eta teknikoak eginiko ekarpenekin osatutako azterketa teknikoa onartzea, honako irizpideekin:
 - Etxeko hondakinen bilketa: bost edukiontzi bidezko bilketa: errefusa, organikoa, papera-kartoia, ontzi arinak eta beira. Errefusa eta organikoaren edukiontzien erabilera mugatua izango dute, hau da, txip bidez irekiko dira. Horrez gain, etxebizitza bakoitzari bere edukiontzia izendatuko zaio. Txip bidez egunero ireki ahal izango da edukiontzia. Beste edukiontzien kasuan, gaur egungo sistemarekin jarraituko dugu.
 - Komertzioak eta ostalaritza: sortzaile handi eta ertainei gaikako bilketa zerbitzua eskainiko zaie, puntuz-puntu, honako frakzioak jasotzeko: organikoa, papera-kartoia eta errefusa. Komertzioei astean sei eguneko eskainiko zaie zerbitzua eta ostalariei zazpi eguneko. Ondorioz, ez dute txartel beharrik izango. Ontzi arinak eta beira jasotzeko kaleko edukiontziak erabiliko dituzte.
 - Enpresak: industrialdeetan puntuz puntu bilduko dira honako frakzioak: organikoa, errefusa, ontzi arinak, egurra, kartoia eta plastiko filma/poliespana. Jantokia duten enpresei hondakin organikoen sortzaile handiei aplikatzen zaien puntuz puntuko bilketa aplikatuko zaie.
 - Landa eremuari dagokionez, ekarpen gune berriak sortuko dira edukiontzi guztiekin. Aztertzekeo geratzen da hondakin organikoak jasotzeko edukiontzia gune guztietan jarri ala ez (nekazalaturismoak, nekazal etxeak...).
- Bilketa sistema berri honek gutxienezko bilketa tasak hauek lortzeko bide izan behar du, urtez urte honela banatuta:
 - 2018an: %60.
 - 2019an: %60tik %70era.
 - 2020an: %70etik %75era.

Horiek gutxienezko helburuak dira, izan ere, helburua ahalik eta jasotze tasa altuena lortzea da (beste eskualde batzuetan gisa bereko sistema erabiliz %80ko jasotze tasara iritsi dira).
- Hondakinak gaika bereiztu eta sailkatzea betebeharrak bat da herritar ororentzat.
- Aurreko puntuan aipatutako portzentajeak lortzen ez badira, neurri zuzentzaileak aztertu eta bideratuko dira, kasuan kasu: errefusaren edukiontzia irekiera denboran mugatzea, edukiontzien erabilizaile kopurua mugatzea...
- Zerbitzuaren kostuak estaltzeko ezarriko diren tasak aztertzen direnean, hobari edota pizgarriak ezartzea baloratuko da zenbait kasutan: auzokonposta, autokonposta, ostalaritza, komertzioak, e.a. Halaber, tasak ezartzeko hainbat eredu daudela kontuan izanik (besteak beste, sortzen den hondakin kopuruaren arabera tasak ordaintzea), gaur egun herriz herri dauden ereduak hartzen ditugu oinarritzat, baina bat egiten dugu "gehien sortzen duenak gehiago ordaindu behar du" printzipioarekin.
- Errefusaren eta hondakin organikoen bilketek maiztasun berbera edukiko dute hasieran, nahiz eta jakin badakigun, bilketa sistemaren garapen egokiaren ondorioz, hondakin organikoaren bilketa maiztasuna igo egin beharko dela eta errefusarena jaitsi. Karakterizazioari dagokionez, urtean errefusaren

karakterizazioa hiru aldiz egingo da eta hondakin organikoarena lau aldiz (GHKren bitartez edo, bestela, Udal Elkartearen bitartez). Hondakin organikoari dagokionez, helburua da inpropio kopurua %5 baino txikiagoa izatea.

7. Jarriko diren edukiontziek, ahal den neurrian, irisgarritasuna bermatuko dute.
8. Sistema berria ezartzeko lanak egiteko, informazioa zabaltzeko eta sentsibilizazio kanpainak burutzeko, lau hezitzaile kontratatzea aurreikusten da: bi 2017ko ekainean kontratatuko lirateke eta beste biak 2017ko irailean (gutxiegi dela ikusten bada gehiago kontratatuko dira).
9. Hezitzaile horien lan eta eginkizuna izango da, besteak beste, herritarrak sentsibilizatzea, gune "ilunak" identifikatzea eta erabiltzaileei zuzenean ohartarazpenak egitea.
10. Sistema berriaren emaitza eta bilakaeraren inguruko datuak argitaratuko dira hilero Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean, sistema berria martxan jartzen den egunetik hasita. Datu horiek udalerrri bakoitzean nola zabaldu udal bakoitzak erabakiko du: panelen bidez, web orrian....
11. Sistema berria ezarri eta lehen hiru hilabeteko datuak hartuta, aldizkari bat banatuko da etxez etxe bailara guztian, lortutako emaitzen eta gaika jasotako hondakinen kalitatearen berri emateko. Horrez gain, sistema martxan jarri eta 12 hilabetera lortutako emaitzak jarritako helburuetatik urrun baldin badaude, komunikazio kanpaina sakon bat egingo da. Bestalde, zabor tasaren ordainagiriarekin batera, sistema berriaren helburuak, jasotze tasaren datuak eta gisa bereko informazioa zabalduko da.
12. Bilketa sistema ezarri aurretik, beharrezko informazio euskarriak etxe guztietara bidaliko dira, funtzionamenduaz gain, markatu diren epe eta helburuak jakinarazteko. Sistema berria herritarrei azaltzeko, beharrezko diren bilerak egingo dira bost udalerriekin adostuta, prentsaren aurrean egingo diren aurkezpenez gain.
13. Lan Mahai Tekniko eta Politikoak jarraipena izango du, sistema berriaren inguruko gai desberdinak jorratzeko eremu gisa. Lan Mahai horretako kide dira bost udaletako teknikariak, EH Bilduko bi ordezkari, EAJ-ko bi ordezkari, Irabaziko ordezkaria, Orain plataformako ordezkaria, PSEko ordezkaria, Urola Kostako Udal Elkarteko teknikariak eta Udal Elkarteko lehendakaria.
14. Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide garen udal ordezkariok konpromisoa hartzen dugu sortuta dauden hondakinen mahaien bilerak deitzeko, mahai horietan sistema berria aurkeztu eta prozesu honetan era aktiboan parte har dezaten (informazioa jaso, ekarpenak egin, jarraipena egin...).
15. Eskualdean lor daitezkeen aurrezpen ekonomikoak eta sor daitezkeen lanpostuak zehazteko, azterketa ekonomikoaren beste aldaera bat landuko da, %80ko bilketa maila erreferentzia gisa hartuta.

ACUERDO PARA MANCOMUNAR EL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS

Acuerdo adoptado por la Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta por unanimidad el 01-12-2016 para mancomunar el servicio de recogida de residuos

1. Aprobar el estudio técnico presentado el 28 de octubre de 2016 a los miembros de la Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad y a los alcaldes de los municipios que la integran y completado con las aportaciones realizadas por el grupo de trabajo técnico-político constituido para tal fin, de acuerdo a los siguientes criterios:
 - Recogida de residuos domésticos: recogida mediante cinco contenedores: rechazo, residuos orgánicos, papel-cartón, envases ligeros y vidrio. Los contenedores para el rechazo y para los residuos orgánicos tendrán acceso limitado, con apertura mediante chip. A cada vivienda le será asignado su contenedor. Los contenedores con apertura mediante chip serán accesibles todos los días. El sistema del resto de los contenedores será el actual.
 - Comercios y hostelería: los grandes y medianos generadores dispondrán de un servicio de recogida selectiva punto a punto, para las siguientes fracciones: residuos orgánicos, papel-cartón y rechazo. Los comercios dispondrán de un servicio de recogida de seis días a la semana y los establecimientos de hostelería de siete días a la semana, por lo que no necesitarán de tarjeta-chip. Los envases ligeros y el vidrio de los comercios y hostelería se depositarán en los contenedores instalados en la vía pública.
 - Empresas: en los polígonos industriales de la comarca se recogerán punto a punto las siguientes fracciones: residuos orgánicos, rechazo, envases ligeros, madera, cartón y film de plástico/poliespan. A las empresas que cuenten con comedores se les aplicará el sistema de recogida de residuos orgánicos punto a punto de los grandes generadores.
 - En el caso de las zonas rurales se instalarán nuevas zonas de aportación/recogida para todas las fracciones. Se estudiará la posibilidad de instalar el contenedor de residuos orgánicos en otras zonas de aportación (establecimientos de turismo rural etc.).
2. El nuevo sistema de recogida debe garantizar, como mínimo, las siguientes tasas de recogida selectiva y evolución anual:
 - 2018: 60%.
 - 2019: entre 60%-70%.
 - 2020: entre 70%-75%.

Las tasas de recogida señaladas constituyen el objetivo mínimo a cumplir, porque se entiende que el objetivo es lograr la mayor tasa de recogida selectiva posible (en otras comarcas sistemas similares de recogida han logrado tasas cercanas al 80%).
3. La separación y clasificación de los residuos es una obligación para la ciudadanía.
4. En el caso de que no se alcancen las tasas especificadas se adoptarán las medidas y acciones correctoras necesarias, en su caso: limitar en el tiempo la apertura del contenedor de la fracción rechazo, limitar el número de usuarios/as de cada contenedor...
5. El estudio de las tasas del servicio valorará el establecimiento de ciertas bonificaciones e incentivos: compostaje comunitario, autocompostaje, hostelería, comercio... Asimismo, considerando los distintos modelos de tasas aplicados a los servicios de recogida de residuos (modelos de tasas según generación de residuos, entre otros), se tomarán como punto de partida los modelos vigentes en los

- municipios mancomunados. No obstante, hacemos nuestro el principio de que “más debe pagar quien más residuos genera”.
6. Las fracciones de rechazo y de residuos orgánicos contarán con las mismas frecuencias de recogida que en la actualidad, si bien somos conscientes de que con una implantación eficaz del nuevo sistema deberemos aumentar las frecuencias de recogida de los residuos orgánicos y disminuir las frecuencias de recogida de la fracción rechazo. Se realizarán caracterizaciones de la fracción rechazo y de la fracción de los residuos orgánicos tres y cuatro veces al año, respectivamente (través de GHK o a través de la Mancomunidad). En el caso de los residuos orgánicos se establece el objetivo de que los residuos impropios no superen el 5%.
 7. Los contenedores instalados garantizarán, en la medida de lo posible, la accesibilidad.
 8. Se prevé la contratación de cuatro educadores/as para realizar labores de implantación, información y sensibilización del nuevo sistema de recogida: dos personas serán contratadas en junio de 2017 y las otras dos en septiembre de 2017 (si se considera que no es suficiente se contratará a más personas).
 9. Serán funciones de los/as educadores/as la sensibilización de la ciudadanía, la identificación de puntos “oscuros” y las advertencias directas a las personas usuarias.
 10. Los datos referentes a los resultados y evolución del nuevo sistema de recogida se publicarán en la web de la Mancomunidad, con una periodicidad mensual, a partir de la implantación del servicio. Asimismo, los ayuntamientos mancomunados estudiarán la fórmula de dar publicidad a dicha información a través de sus recursos (web, paneles informativos etc.).
 11. Se editará y buzoneará en todos los domicilios de la comarca una publicación con los datos relativos a los tres primeros meses de implantación del nuevo servicio, en el que se mostrarán los resultados y calidad de los residuos recogidos de forma selectiva. Si a los 12 meses de implantación del sistema se constata que los resultados obtenidos distan de forma considerable de los objetivos establecidos, se desarrollará una campaña de comunicación específica. Asimismo, en el recibo de la tasa de la recogida de residuos se dará información sobre los objetivos del nuevo sistema, las tasas de recogida e información similar de interés.
 12. Con anterioridad a la implantación del nuevo sistema se remitirán a todos los domicilios de la comarca los soportes informativos necesarios para dar a conocer el funcionamiento del servicio y los objetivos y plazos acordados. Además de las oportunas presentaciones ante la prensa y medios comarcales, se acordarán con los cinco ayuntamientos las sesiones informativas que sean necesarias para exponer y explicar el nuevo sistema de recogida a la ciudadanía.
 13. Se dará continuidad al Grupo de Trabajo Técnico-Político como foro de debate y estudio de los aspectos relacionados con el nuevo sistema de recogida. Integran el grupo de trabajo los técnicos de los cinco ayuntamientos, dos representantes de EH-Bildu, dos representantes de EAJ/PNV, un representante de Irabazi, un representante de la plataforma Orain, un representante de PSE, los técnicos de la Mancomunidad y el presidente de la Mancomunidad.
 14. Los representantes municipales miembros de la Comisión Ejecutiva nos comprometemos a convocar reuniones de las mesas de residuos de los distintos municipios, para presentar el nuevo sistema de recogida y canalizar su participación activa en el proceso de su implantación (transmitir información, recabar aportaciones, realizar el seguimiento...).
 15. Se realizará una versión del estudio técnico realizado con una tasa de recogida separada del 80%, al objeto de establecer el ahorro económico que supone y la generación de empleo que implica.